

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak 5,6 milioi euro baino gehiago inbertitu diren Tuterako epaitegiak inauguratu ditu

Nafarroako Gobernuak era horretan Foru Komunitateko bost barruti judizialeko egoitzen berritze eta zabalkundeari amaiera eman die

Jueves, 19 de julio de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina Angulok Tuterako epaitegien egoitza berria inauguratu du gaur eguerdian, Merindades etorbideko 66. zenbakian dagoena. Eraikin horretan 5,6 milioi euro baino gehiago inbertitu da, eta udalerrri horretarako Pablo Sarasate etorbideko 4.ean zegoen aurrekoa ordeztu du



Inaugurazioan izan diren agintariak.

Tuterako epaitegien berrikuntza Nafarroako Gobernuak duela hamarkada bat abian jarri zuen Justizia Administrazioaren modernizazio-planaren barnean kokatzen da. Harrezkero, Foru Gobernuak komunitateko bost barruti judizialen egoitzak berritu eta zabaltu ditu.

Nafarroako Lehendakariak egindako agerraldian aitortu du justizia "erabatekoa eta eraginkorra" lortzeko beharrezkoa dela bere zerbitzura dauden baliabideak "inkardinatzen den gizartearen behar, eskaera eta ezaugarriekin bat etor daitezen".

Yolanda Barcinak ere "Nafarroako Gobernuak duen poza" agertu du Foru Komunitateko epaitegiek –CGPJren urteko txostenaren arabera– 2011. urtean zintzilik zeuden gaien tasa txikiena lortu zutelako Espainia guztian eta prozeduren pilaketa-indize txikiena.

Alde horretatik, Lehendakariak adierazi du hori "bokazioz eta ahaleginez" lan egiten duten profesional eta funtzionario guztien "meritua" dela; arrazoi hori dela eta, Nafarroako Gobernuak bere "aitorpena" erakutsi die.

Inaugurazio-ekitaldian ere parte hartu dute:

Lehendakaritzako, Justiziako eta Barneko kontseilari Javier Morrás Iturmendik; Nafarroako Parlamentuko lehendakari Alberto Catalán Higuera-ek; Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Juan Manuel Fernández Martínez-ek; Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kide Antonio Monserrat Quintana-k eta Tuterako alkate Luis Casado Oliver-ek.

Organo judizialak eta eraikuntza

Gaur inauguratutako eraikinak honako organo judizial hauek ditu: lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegiak 1,2, 3, 4 eta 5 zenbakiak; Fiskaltza; epaitegi dekanoa: Erregistro Zibila; emakumearen gaineko Indarkeriaren epaitegia; Nafarroako Lege Medikuntzako Institutua; prokuradoreen gela; eta abokatuen gela.

Nafarroa 2012 Planean dagoen haren eraikitzea 2010eko uztailean esleitu zitzaion Tuterako Epaitegien ABEEari, OHL, SA (% 70) eta Elcarte Construcciones, SA (% 30) enpresek osatua. Aldiz, proiektua WARQS Oficina de Arquitectura S.L.P eta Otxotorena Arquitectos, SM enpresek diseinatu dute. Kokatzen den lursaila Tuterako Udalak laga zien.

Obrak 2010eko abuztuan hasi ziren eta 16 hilabetez luzatu dira, aurtengo otsailera arte. Eraikin berria aurreko eraikinean zegoen ia altzari guztiekin ekipatu da. Egoera txarrean zeudelako soilik erosi dira altzari berriak epaileen bulegoetarako eta epaiketa-aretoetarako. Jarduera judiziala maiatzaren 28an hasi zen egoitza berri horretan, eta jarduera hori ez zen eten lekualdatzea izan zenean.

Eraikinaren ezaugarriak

Eraikinak 5.356,49 metro koadroko azalera erabilgarria du eta lau solairutan banatuta dago: sotoa, beheko solairua eta bi altuera. arkitektura ekologikoaren ECOCITY programa betez diseinatu da eta ingurumena errespetatuz.

Sotoan garajea, artxiboak, biltegiak eta instalazioetako aretoak daude. Aldiz, informazio-zerbitzua, Guardiako epaitegia, Erregistro Zibila, Dekanotza, bost epaiketa-aretoak, abokatuen togen gela eta Foruzaingoaren bulego batzuk beheko solairuan daude. Lehenengoan bost epaitegiak, emakumeen gaineko indarkeriaren epaitegia eta prokuradoreen gela daude. Azkenik, bigarren solairuan Nafarroako Lege Medikuntzako Institutua eta Fiskaltza daude.



Barcina Lehendakaria bertaratutakoei hitz egiten. Oholtzan laguntzen diote, ezkerretik eskuinera: Casado, Fernández, Catalán, Monserrat eta Morrás kontseilariak.

Galería de fotos



Tuterako epaitegien egoitza berriko kanpoko irudia.